

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2018/2019 ikasturtea**

**MUSIKA, EDUKIAK BARNERATZEKO TRESNA**

**Kanta berria eskolarako**

**Egilea: Katalin Zarate Arrieta**

**Zuzendaria: Miren Josu Arriolabengoa**

**Leioan, 2019ko maiatzaren 23an**

## Aurkibidea

Sarrera.....	3
1. Marko teorikoa.....	4
1.1. Adimen anitzak.....	4
1.2. Musikak curriculumean duen isla.....	5
1.3. Musikak garapenean duen eragina.....	8
1.4. Musika Hezkuntza .....	11
1.5. Musika eta kantuaren didaktika.....	13
2. Metodologia.....	15
3. Ikerketa.....	16
3.1. Elkarrizketen analisia eta interpretazioa.....	17
3.2. Umeentzako kantuen analisia eta interpretazioa .....	19
3.3. Ikasle taldearen ezaugarriak .....	21
4. Sorkuntza: Komunikatzaile gara gu.....	22
4.1. Kantaren sorkuntza .....	22
4.2. Koreografiaren sorkuntza.....	23
5. Frogaketa.....	24
6. Emaitzak eta ondorioak.....	25
7. Erreferentzia bibliografikoak.....	27
Eranskinak .....	30

## MUSIKA, EDUKIAK BARNERATZEKO TRESNA

### Kanta berria eskolarako

Katalin Zarate Arrieta

EHU/UPV

Musikak eta gorputz adierazpenak garrantzia handia dute gure bizitzetako une eta esparru anitzetan. Hori kontuan hartuta, lan hau Lehen Hezkuntzako bigarren mailako edukiak kantuen eta gorputz adierazpenaren bidez lantzeko proposamena da; edukiak epe luzerako gordetzeko asmoz eta ikasleek modu motibagarri eta kooperatibo batean lan egiteko asmoz, beste hainbat helbururen artean. Kantagintzan adituak elkarrizketatu eta kantutegiak aztertu ondoren sortutako material berria, klaseko edukiak biltzen dituen kantua eta honen koreografia osagarria dira. Horrez gain, kantua eta dantza erabiltzeko proposamen bat ere ageri da lanean. Amaitzeko, ikastalde batekin frogatu ondoren honen erabilgarritasuna balioztatu ahal izan da.

*Kantua, Ikasketa esanguratsua, Lankidetzeta, Ikus-entzunezkoa, Lehen Hezkuntza*

La música y la expresión corporal tienen mucha importancia en infinidad de situaciones y aspectos de nuestras vidas. Así pues, este trabajo es una propuesta para trabajar y desarrollar los contenidos del segundo curso de la enseñanza obligatoria; con un objetivo claro de mantener estos contenidos a largo plazo y que el alumnado los trabaje de forma motivadora y cooperativa, entre otros. El material creado, una canción exclusiva que reúne los contenidos a trabajar junto con una coreografía que hace más atractiva la misma canción, está basado en fundamentos teóricos como entrevistas realizadas por y para el proyecto como en la investigación de un cancionero. Además, este trabajo también recoge una propuesta para el uso de la obra y la coreografía. Para terminar, se han reunido los resultados conseguidos con el alumnado y las conclusiones de todo el proceso.

*Canción, Aprendizaje significativo, Cooperación, Audio-visual, Educación primaria*

Music and expression of the body are significant components in a variety of situations and aspects of our lives. Therefore, this project proposes to elaborate and expand on the outcomes of the second course of compulsory education; with a clear objective to maintain these learning outcomes for the long term and to motivate students to work collaboratively with each other. The material created has its base in theoretical foundations along with the outcomes of interviews that were carried out specifically for this project, with an exclusive song created to bring together the different aspects of the work, and choreography, which complements the song, enhancing its appeal. In addition, a proposition for the use of the material and choreography is also included. Finally, the outcomes and conclusions from the entire process have been collated, always with their focus centred around the student.

*Song, Meaningful learning, Cooperation, Audiovisual, Primary*

## Sarrera

Gradu Amaierako Lan honetan hezkuntza orokorraren esparruan musikaren erabilera bultzatu nahi da, eskaintzen dituen onurak agerian utziz. Horrela ba, ondorengo lerroetan Txanela proiektuan hutsune bat ikusita eskolan erabiltzeko ikus-entzunezko materiala sortu eta frogatu da.

Horretarako bidean, kantua eta dantza jarduera erabilgarri eta aprobetxagarriak direla kontsideratzen da; azken finean, kantuak onura anitz dakartza gure garapenean, batetik; eta, bestetik, oroitzapenaren lagun ere bada.

Horrez gain, ikasleak bizitzarako prestatu behar ditugunez gero, memoria ez ezik beste hainbat alderdi ere garatu behar du umeak, eta alderdi horiek musikak eta gorputz mugimenduak etengabe garatzen ditu, zeharka bada ere.

Ekintza sozialtzat ere har daiteke musika, bizitzako hainbat esparrutan agertzen zaigulako, garaian garaiko ikuspegi bat ematen digulako eta esan daiteke, beraz, ezaugarri kolektibo eta kulturala baduela musikak. Gainera, telebista, zinema edo literaturarekin batera gure inguruan dagoen errekurso testualik garrantzitsuenetakoa da; Emolek 2010ean munduko biztanleriaren % 60rentzat musika euren bizitzetako denbora pasa handienetakoa izan zela argitaratu zuen eta 2018an ateratako datuen arabera % 90,3k musika entzuten du ia egunero (La Razón, 2018).

Hori kontuan hartuta, eta Txanela metodoko *Gora Gutenberg, gora Markoni!* proiektuan landutako edukiak barneratzeko asmoarekin, kantu bat sortu da gai horretako edukiak biltzen dituen; gainera, bertako hitzik garrantzitsuenak barnean ere batzen ditu. Izan ere, proiektuan ikasketa esanguratsua bultzatzeko eta musika alorretik osatzeke dagoen hutsunea sumatu da.

Aipatzekoa da ikasleen beharretara egokitzeko egin den lana. Kantu berri horrekin batera, kantuaren mamia eta esanahia plazaratzen duen dantza ere sortu da: ikasleek haien gorputzekin esperimentatu eta barneratutakoa komunikatzeko. Dantzaren kasuan ere, ikasle taldea izan da erreferentzi nagusia koreografiaren sorreran.

## 1. Marko teorikoa

Ondorengo lerroetan musikak hezkuntzan duen garrantziaz hitz egingo da eta, aldi berean, garrantzitsua izango da ikerketan emango den informazioaren nondik norakoak ulertzeko.

Lehenengo, Gardnerren adimen anitzen inguruan hitz egingo da. Ostean, musikak Curriculumarekin eta garapenarekin duen lotura aztertuko da. Ondoren, musika hezkuntzaren inguruan aztertuko da eta, azkenik, kantuaren eta gorputz adierazpenaren didaktika azalduko da.

### 1.1. Adimen anitzak

Howard Gardner dugu gaur egun indarrean dagoen psikologiaren alorreko zientzialari eta Adimen Anitzen teoriaren erreferente nagusia. Gardnerren teoriak dioenez faktore genetikoek, kulturek eta norberaren testuinguruak adimen mota bat edo beste garatzen laguntzen du; gaitasunak denok ditugu gure barnean Gardnerren ustez, baina horien garapen maila ezberdina da. (Oihartzabal, 2003)

Gardnerrek Adimen Anitzen teoria 1983an aurkeztu zuen eta geroztik hainbat egokitzapen egin ditu. Zortzi inteligentzia mota ezberdintzen ditu (Gardner, 1983):

- Hizkuntza-adimena: hitzak, idatziz zein ahoz, modu eraginkorrean erabiltzean datza. Hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta informazioa lortzeko gaitasuna da; eta honi esker, zentzuzko esaldiak sortzeko gai gara.
- Adimen logiko-matematikoa: problema matematikoak, hipotesiak edo argudioak ebazteko gaitasuna da. Pentsamendu logikoa erabiltzen da normalean.
- Adimen musikala: musika hauteman, diskriminatu, eraldatu eta adierazteko gaitasuna da. Horrez gain, erritmo, tonu eta tinbreak atzemateko gaitasuna ere bada. Adimen mota hau oso goiztiarra da eta instrumentu bat jotzen dugunean, abesten dugunean, aditzen dugunean, musika sortzen dugunean edo emozioak eta sententzioak musikaren bidez azaleratzen ditugunean garatzen da.
- Adimen zinetiko-korporala: ideiak eta sentimenduak adierazteko gorputzaren erabileran datza. Koordinazioa, malgutasuna, oreka, indarra, abiadura, kapazitate sinestesikoa, bolumenak eta neurriak hartzen ditu bere baitan adimen mota honek.

- Adimen espaziala: hiru dimentsiotan pentsatzeko gaitasuna da. Kanpoko eta barneko irudiak hautemateko edo birsortzeko gaitasuna.
- Pertsonarteko adimena: gainerakoak ulertzeko eta gainerakoekin harremanak erraztasunez izateko gaitasuna da. Garrantzia handia dute gorputzaren jarrerak, ahotsak, keinuek, posturek eta erantzuteko gaitasunek.
- Pertsona barneko adimena: nork bere burua ulertzeko gaitasunari deritzo. Norberaren mugak ezagutzeko, ahuleziak, indar-guneak zeintzuk diren hautemateko gaitasuna da.
- Adimen emozionala: pertsonarteko eta pertsonen barneko adimenaren uztarketari deritzo. Norberaren edo ingurukoaren gogo-aldarteak zein den hautemateko gaitasuna da.
- Adimen naturalista: aurreko adimenetara gehitutako zortzigarren adimen mota da. Adimen honek ingurumenari garrantzia ematen dio eta hori zaintzeko, ulertzeko, behatzeko edo sailkatzeko gaitasunari deritzo.

Horrek guztiak badu isla hezkuntzan, azken finean, eskolak pertsonekin lan egiten duenez gero arestian aipaturiko adimenak kontuan hartu behar ditu. Izan ere bere xedea umearen garapen osoa bultzatzea da bizitzako edozein esparrutan moldatu eta arazoak konpontzeko eta hortaz, berebizikoa da kalitatezko hezkuntza bat lortzera bidean. Horrela ba, euskal curriculumak, Heziberri 2020k kontuan hartzen du eta zehar-kompetentziak aurkezten ditu; hau da, arazoak eraginkortasunez konpontzeko beharrezkoak diren kompetentziak.

### 1.2. Musikak curriculumean duen isla

236/2015eko dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma ezarri zuen. Bertan agertzen diren gaitasunak kantuaren, musikaren eta dantzaren bidez lantzea posible litzateke.

Kompetentzien artean *zehar kompetentziak* ditugu eta horiek modu honetan landu daitezke musikaren bidez (Longueira, 2011):



1. Irudia: Kompetentziak. Heziberri 2020

- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia: musikak elkarrekin komunikatzeko aukera ematen digu, hitzaren bidez edo taldean gaudenean begirada erabilita, adibidez. Gorputz mugimenduak ere komunikatzeko aukera emango digu, hitzik gabe. Gaur egun, komunikazio digitala nonahi aurki dezakegu eta musikarekin are errazago, sarean dauden bideoak eta audioak begiratzea besterik ez dago.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia: kantu bat barneratu behar dugunean letra ikasi behar dugu eta abestiak dioenez pentsatu; ikaslea bere prozesua ikertzeko eta planifikatzeko prestatuta egon beharko da. Koreografia bat ikasterakoan ere hainbat gauza hartu behar dira kontuan eta modu horretan kompetentzia hau garatzea ezinbestekoa da, ikasleak ikasketa prozesuaren kontzientzia hartuko du.
- Elkarbizitzarako kompetentzia: kantua eta dantza elkarrekin egiten dugu, bakarrik egin ahal badira ere, talde-lana eskatzen dute, enpatia sentituko dugu elkarrekin abesterakoan, kideen beharra koreografia bat sortzerakoan...
- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia: kooperazioa beharrezkoa dugu kantuan eta dantzan gaudenean, gainera, etengabe egon beharko dugu sortzen, ekiten eta gogotsu parte hartzen ekimenetan.
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia: talde-lanean egiten diren jarduera guztiek norberarenganako eskaera-maila eskatzen dute, non norberak noraino heltzen den ikusiko duen. Dantza horietako jarduera bat da, bakoitzak ikusiko du bere gorputza noraino heltzen den, esaterako.

Zehar kompetentziaz gain diziplina barneko kompetentziak ere badaude curriculumean, horiexek ere musikaren eta dantzaren bidez nola garatu ikusiko dugu ondorengo lerroetan (Espinar, 2017):

- Hizkuntza eta Literatura komunikaziorako kompetentzia: hitzeko eta idatziko testuak erabiltzean datza, eta kantuaren bidez hori modu egokian garatu daiteke. Kantuetan lexiko berriak txerta daitezke, kantuak dioena ulertu beharko dute, literatura-testu berri bat aztertuko eta ikasiko dute. Gainera, arnasketa, ahoskera eta artikulazioa ere landu ditzakete.
- Matematikarako kompetentzia: musikaren oinarrizko elementuen bidez gara daiteke; esaterako, denboraren irudikapena, pultsua, silabak... Elementu horiek

berebiziko erlazioa dute pentsamendu matematikoarekin. Ikerlari askok aipatzen dute matematika eta musikaren arteko erlazio estua; esaterako, Leibniz edo Pitagoras:

- Zientziarako konpetentzia: akustika bezalako oinarrizko kontzeptuak aztertzeke oso egokia izan daiteke musika.
- Teknologiarako konpetentzia: arte-ekoizpenak, eta horrela musika eta dantza, gero eta gehiago kontsumitzen dira euskarri teknologikoen bidez; hortaz, ezin da ukatu arte-gaitasunaren eta teknologiaren arteko erlazioa.
- Arterako konpetentzia: musika eta dantza arte diziplinak dira, beraz, horren bidez artearen gaitasuna garatzen da.
- Konpetentzia sozial eta zibikoa: musikaren bidez nor bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutzea errazten da. Musikak bakoitzaren mugak zehazten ditu eta gizartearen inguruko informazioa ere ematen digu (Arrieta, 2019). Aspalditik tradizioan gordeta ditugun kantuak begiratzea baino ez dago (Zubiri-zubiri, Goizuetan bada gizon bat, Maitia nun zira, Bereterretzeren kantorea, Alos Torrea) bertan izugarrizko altxorak gordetzen baitira.
- Konpetentzia motorra: musikak mugimendua eragiten du eta era berean musika mugimendu bidez sortu eta adierazten da, hortaz, jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzen dira. Gorputza komunikatzeko bitartekari da eta egunerokotasunean hain beharrezko ditugun oreka, espazio antolaketa eta osasuna zaintzen laguntzen digu.

Konpetentzia hauek lortzeko bidean, hezkuntzan hainbat bide eraikitzen joan dira. Azken urteotan, parte hartzea, koordinazioa, kooperazioa eta globaliazioa lantzeko asmoz hainbat berrikuntza proiektu sortu dira:

Proiektuen bidezko ikaskuntza; ikaskuntza honetan xedea erabaki behar da, plangintza sortu, plana diseinatu, baloratu eta aurkeztu edo komunikatu. Plan honi esker, koordinazioa, motibazioa eta elkarrekin lan egitea garatuko dute ikasleek (Hik hasi, 2019).

Ikaskuntza aktiboa dugu beste proiektu bat, ikaskuntza mota honetan arloak elkarlotuta agertzen dira eta ekintzak ikasleen errealitatearekin eta beharrekin daude lotuta.




Ikasleak material manipulatioekin ikasten du. Hemen ere aipatutako konpetentziak lantzen dituzte (EHU, 2006).

Azkenik, Ikasketa kooperatiboa aipatuko dugu; lelo nagusia “Ikasteko kooperatu eta kooperatzen ikasi” da (Larrañaga, Alonso & Bidezabal, d.g.). Talde heterogeneoak bilatzen ditu ikasketa honek eta talde lana erabiltzen dute baliabide gisa. Komunitate eta talde kontzientzia hartzeko balio die ikasleei.

Lan hau burutzeko kontuan hartu den erreferentzi nagusia Txanela metodoa izan da; haurra bere osotasunean hartzen du gaitasunen garapenean oinarrituta, ikasketa esanguratsua eskainita, motibazioa bultzatuta, aniztasuna errespetatuta eta balioen eta jarrerren hezkuntza eraikita.

### 1.3. Musikak garapenean duen eragina

Musikak garapenaren inguruan arestian aipatutakoak garatzeko onura asko eta garrantzitsuak dakartza, efektu positiboak ditu alde, intelektualean, psikologikoan, kognitiboan eta sormenean. Gainera, garuneko ezkerreko hemisferioa garatzen laguntzen du (Susanna Rodriguez, d.g).



2. Irudia: Eagleeskema (1966)

Garapen kognitiboari dagokionean, Campbellek (2001) honakoa dio: “las conexiones neuronales que permiten la concentración, habilidades matematicas y aprendizaje de idiomas, son favorecidas por la audición o la práctica musical” (Liliana, Morales eta Diaz, 2017, 106.or.). Horrela ba, hainbat ikerketek diote bereizketan eta galderak egiterako prozesuetan lagungarri dela soinuak eta tinbreak klasifikatzea, soinuak ordenatzea, intentsitateak bereiztea, kantuak edo instrumentuak zenbatzea.

2002an Gabriela Soto Villaseñor pedagogoak musika sentsibilitatea, motrizitatea, memoria, atenzioa, kontzentrazioa, sozializazioa edo pentsamendu logikoa garatzeko gai dela baieztatu zuen; eta ez hori bakarrik, beste hainbat materia ikasteko bide aproposa dela jakinarazi zuen (El País, 2019).

Musikak Informazioa memorian gordetzeko indarra dauka, ondare kulturala gaur egun arte ekarri digu eta duela ehunka urte gertatutakoaren inguruko informazio asko

musikari esker dakigu. Beraz, argi geratzen da memorian gordetzeko giltza badela. “Kantuak herriaren ispilu dira” (Arrieta, 2019).

Daniel Sammlerrek (data gabe), Max Planck Institute for Human Cognitive and Brain Sciences, egindako ikerketa baten emaitzak dira teoriarik ezagunena. Ikerketa horren arabera kantu baten letra lobulu tenporalean geratzen da, non denbora luzez gordetzen den, Sagrario Manzanok 2016an azaltzen zuenez “poder recordatorio de la música” delakoaren ondorioz. Aitzitik, buruz ikasten ditugun edukiak epe laburreko oroimenean edo epe luzeko memorian gorde daitezke baina epe luzeko memorian gordetzeko teknikak erabili beharko dira; musika, adibidez.

Si mi forma de estudiar se apoya en varios inputs sensoriales (vista, oído, experiencias...) es pausada, razonada y prolongada y sigo evocando esos datos por mi actividad profesional (como es el caso de los médicos), esos datos nunca se olvidan, por mucho que pasen los años. Por tanto, las técnicas de estudio van a ser cruciales en la consolidación de los recuerdos. (Manzano, 2016)

Hainbat teoria ezagutzen badira ere, denek egiten dute bat musikaren gogoratzeko gaitasunean, eta bestela Alzheimerrarekin azken urteetan egin diren ikerketak begiratzea baino ez dago. “Las melodías y las letras de las canciones ralentizan claramente la pérdida de memoria y mejoran el lenguaje.” (Menéndez, 2018) Edo Flor de Juanek honakoa (2018) dio: "Pacientes que no hablan nada y que ya no atienden a estímulos pueden llegar a cantar una canción entera" (RTVEk aipatua, 2018)

*Faktore linguistikoari* dagokionean, kantuak faktore hori garatzen laguntzen digu; izan ere, jatorri bera dute eta hainbat mekanismo neurologiko berdin dituzte. Umeek, beste hainbat gauzaren artean, entzumena, ahozkotasuna, hiztegia, ahoskera eta beste hainbat alderdi garatzen laguntzen digu.

Hizkuntzaren garapenean indar handia dauka musikak; erritmotik hasita, erritmoak gure komunikazioa ahalbidetuko du behar dituen geldialdiak egitera behartuz, esaterako.

Horretarako bakarrik ez, komunikazioan beharrezkoa da interakzioa eta musikak interakzioa ahalbidetuko du sortzen duen giroari esker.

Daniel Schöneke (data gabe) egindako ikerketa batek musikak ikasleen hiztegia handitzeko duen gaitasuna aztertu zuen. Egindako ariketa batean melodiak eta intonazioak erabili zituztenen % 64k lortu zuen ikasi beharreko hitzak ikastea; aldiz, erabili ez zutenen artean ez zuen ikasle bat berak ere hitzak ikastea lortu. (Sanz, d.g.)

Ceularexek (2009) hizkuntzaren garapen hau kantuekin batera mugimenduak gehituz landu behar dela dio (Romero, 2017). Horrela bada, faktore fisikoan ere lagunduko digu musikak.

*Faktore psikomotorrari* erreparatuz, hainbat onura dakartza kantuak: arnasketa eta ahotsaren kontrolean lagunduko digu eta buruko eta lepoko muskuluak indartzeko ere oso baliagarria da. Askotan, kantuarekin batera gorputz adierazpena erabiltzen bada, koordinazioa lantzeko aukera ematen digu. Kantuaren erritmoa gorputzarekin eramanda, dantza bat sortuz, musikak sentiarazten diguna erakutsiz...

La expresión musical en los primeros años del desarrollo humano se centra en los elementos del ritmo más que en los melódicos, lo anterior gracias a que impulsos naturales tales como el moverse, manipular, tocar, observar, entre otros, permite dar al niño repuestas frente a los sonidos que se van convirtiendo a su vez en su medio de expresión, ya que el ritmo desarrolla el control motor elemental y la coordinación sensoriomotora. (Romero, 2017, 11or.)

*Faktore emozional eta sozialari* dagokionean motibazioa eta erakargarritasuna emango digute kantuek, ikasleen gustuko den klima sortuz klasean. Modu horretan, ikasleek erosoago eta modu erakargarrian ikasteko aukera izango dute. Izan ere, musikak eta emozioek burmuinaren alde bera konpartitzen dute: kortex prefrontala. Hortaz, Piquerrek (2016) dioenez, musika edozein sentimendu eragiteko gai da (E. Romero Romero, 2017). Gainera, Valenciak (Romero, 2017) esaten duenez, musika entzuten dugunean imitazioaz eta enpatiaz arduratzen diren burmuineko atalak aktibatzen dira. Bertan, ispilu neuronak daude eta horri esker, ondokoen sentimenduak senti ditzakegu. Honakoa aipatzen du Loroñok "...cuando las personas reaccionan ante el estímulo de la música experimentan en el cuerpo diferentes sensaciones, ello dado que la música produce un cambio tanto fisiológico como psicológico, reacción conocida como biomúsica" (Mosquera, 2013, 35 or.).

Musika hizkuntza unibertsala dela esan dezakegu, Max Planck institutuan egindako ikerketa batek (El país, 2009) dioenez, musikaren bidez kanporatzen diren sentimenduak berdin edo oso antzera ulertzen dira mundu osoan zehar; eta beraz, musikak kulturen arteko mugak apurtzen ditu. Gainera, kultura guztiek umeentzako folklore propioa izateak beharizan unibertsal baten erantzuna dela argi uzten du.

Musikak talde izaera duela eta taldea egiten eta sendotzen laguntzen duela esan daiteke, "El Periodico" aldizkariak honakoa argitaratu zuen 2017ko "La música, elemento cultural, educativo e integrador" artikuluan:

...Eso es lo que hace la música en el grado elemental: hay compañerismo cuando cantan los niños de una clase una misma canción o intimidad cuando los pequeños cantan solos, confianza porque le ayuda a expresar todas sus potencialidades, simpatía porque se divierte con la música, armonía porque como he dicho anteriormente contribuye a su desarrollo integral... (El Periódico, 2017)

Munstergo unibertsitatean egindako ikerketa batek normalean abesten zuten umeen % 80 eskolaratze normal baterako prest zegoela adierazi zuen 2015ean, eta aldiz, askorik abesten ez zuten umeen % 40 baino ez zegoen prest eskolaratzerako (Savall, 2015).

#### 1.4. Musika Hezkuntza

Musikak hizkuntza propioa dauka, hizkuntza musikala deiturikoa. Hizkuntza horretan tonuak, erritmoak, entzumenak, eskalak, notak eta denborak garrantzia handia daukate baina horiek transmititzen duten sentimendua ere behar-beharrezko bihurtzen da. Horrela ba, igorle bat eta hartzaile bat egongo da musika hezkuntzan, komunikazioan dagoen gisara. Musikaren helburua, hortaz, hartzailearengan esperientzia bat eragitea izango da non garrantzia izango duten sentimenduek, emozioek, bizitako egoerek, pentsamenduek edo ideiek.

Beraz, *hartzaile eta igorle* bat dauden unetik entzutearen garrantzia berebizikoa izango da igorlearentzako. Entzumena landuz, umeak ezberdintasun handia dagoela ulertuko du entzuten eta aditzearen artean. Entzuten dugunean belarriaren bidez soinuak hautematen ditugu; aditzen dugunean, oster, atenzioa jartzen diogu entzuten ari garen horri (Perez, d.g). Baina komunikazioa sortzea nahi badugu, aditzea aktiboa izan beharko da, entzuten dugun horri zentzua eman behar diogu. “Escuchar no es simplemente oír o percibir sonidos. Para que se produzca un proceso de comunicación esta escucha debe ser activa” (Viña, 2013). Musika alorrean, entzuten dugun horretan kontzentratzen garenean adituko dugu musika, atenzioa jartzen dugunean eta alderdi afektibo eta intelektualak martxan daudenean.

*Igorleak*, oster, hainbat bide ditu mezua transmititzeko, kasu honetan sortutako musika eta berarekin doan guztia erabiliko du; baina modurik zuzenarikoa kantua dela esan daiteke. Kantua baita “The New Grove Dictionary of Music and Musiciansen” arabera (1980) “el arte de modular la voz acentuando o apoyando sus diversas inflexiones para producir sonidos que convierten la palabra en música” (Rosano, 2014, 24 or.).

Ume guztiak dira abesteko gai, baina kantatzerakoan disfrutatzea, sentsibilizazioa eta ondo abestearen giltza irakaslearen esku gelditzen da.

Prozesu guzti horretan erritmoa, entzumena eta ahotsa elkarri lotuta agertzen dira eta musikaren oinarria direla esan daiteke, gainera hainbat onura dakartza: gorputza eta burmuina freskatzea, urduritasunak lasaitzea, sormena lantzea, intuizioa garatzea edo sentimenduak eragitea.

*Erritmoa* gure bizitzako esparru gehienetan agertzen zaigu jaiotzatik; pausuak, bihotz taupadak, arnasketa, hizketan aritzea... Beraz, erritmoaren kontzeptua barneratuta izatea garrantzitsua da Willemsen ustean, lehenengo urteetatik erritmo musikalak gorputzaren erritmoarekin bat eginda (Amaranta, 2012).

Erritmoa musikaren oinarrizko elementurik garrantzitsuenetarikoa bada ere, Chicagoko Northwestern unibertsitateak egindako ikerketa batean erritmoa gizakion komunikaziorako ere berebizikoa dela azaldu zuen; hitzen arteko geldiuneak, esaldien osotasuna, eta abar. “Los científicos concluyeron que el ritmo es un parte integral tanto de la música como del lenguaje. El ritmo del habla es esencial para su entendimiento, ya que las diferentes pausas y entonaciones enfatizan el mensaje” (Prensa Libre argitaratua, 2013an).

Beraz, erritmoa eskoletan landu daitekeen musikaren elementurik oinarrizkoena baita eta ikasleek ez dute aparteko azalpenik behar izango bakoitiak barnean naturalki daramalako. Umeek lehenengo barneratuko dituzten erritmoaren elementuak pultsua eta azentua izango dira, barneratuta daukalako lehenengo urteetatik (Arrieta, 2015).

Erritmoak lotura zuzena dauka **mugimenduarekin**. Erritmoak gauzatzeko mugimendua erabiltzen du eta horretarako hainbat moldaera izan daitezke: gorputzaren mugimendu espontaneoak, dantza, gorputzaren espresioa, hitza eta instrumentu musikalak.

Umeek mugimendua berezkoa dute eta hori espazio eta denbora batean kokatzen jakin behar dute; hortaz, hezkuntzan erritmoa mugimenduarekin lotuta landu beharko litzateke.

Kontuan hartuta musikak eta dantzak gaur egun duen garrantzia gure artean ikasgeletan leku garrantzitsua hartzen du. Pello Reparazek (2019) egindako elkarrizketan dioenez “musikak edozein gai hartzen du bere barnean eta edozein gai landu daiteke horren bidez”.

### 1.5. Musika eta kantuaren didaktika

Kantu bat irakasten dugunean hainbat alderdi izan behar dira kontuan eta horretarako kanta irakasteko prozesuak garrantzia du. Ondorengo lerroetan abesti bat nola irakatsi behar den azaltzen digute irakasle batzuek eta prozesu osoan ez bada ere, antz handia dute aurkezten dituzten jarraibideetan.

Curtain eta Dahlberg-en (2014) arabera ikasleei kantuak irakasterakoan jarraitu beharreko jarraibideak ondorengoak lirateke (García, I.M eta Juan A.D.-ek aipatua, 2016, 7 or.):

- Ikaslea prestatu: ikasleari kantuaren nondik norakoak aurkeztu behar zaizkio eta abestiaren grabaketa bat jarri edo abesti osoa abestu ikuspegi orokorra jasotzeko.
- Hitzak azaldu: ikasleek hitz guztien esanahiak ezagutzen dituztela ziurtatu.
- Abestia esaldiz esaldi irakurri: irakasleak esaldika irakurriko du eta ikasleek esaldia errepikatu behar dute.
- Abestia esaldiz esaldi abestu: irakasleak esaldi bat abestu eta ikasleek errepikatu beharko dute, esaldia ondo egin arte ez dira hurrengo esaldira pasatuko.
- Erritmoa gehitu: abesten duten bitartean gorputzarekin erritmoa eraman (txaloekin, oinekin...).

M. Luisa Coronadok eta Javeir Garciak beste planteamendu bat aurkezten dute “De cómo usar canciones en el aula” lanean (1990, 227-233.or.):

- Hasierako ariketak: ikasleak testuaren gaiak kokatzeko.
- Entzun: entzumen ariketa ezberdina izango da kantuarekin lortu nahi dugun helburuaren arabera.
- Letra irakurri: hainbat ariketa mota planteatu daitezke irakurketa helburu dutenak.
- Abestu: errepikapenak eginez.
- Ondorengo ariketak: abeslariaren inguruko berriak irakurri, gaiaren inguruko informazio gehiago lortu... ariketa anitz aurkez daitezke.

Mosstonek (1986) aurkezten dituen dantzen irakaskuntza estilo edo ereduak ezagutzea interesgarria izan daiteke (Marcela, 2015, 17-27 or.), abestiak irakasterakoan erabiltzen direnekin nolabaiteko baliokidetasuna antzeman daitekeelako:

- Irakaslearen estiloa: irakasleak du protagonismo osoa eta koreografia muntatzeko jarraitzen diren hiru faseetan (aurre inpaktua, inpaktua eta inpaktu ostekoa) hartuko ditu erabakiak. Ikaskuntza zuzena eta berehalakoa emango da. Estilo honek honako ezaugarriak sortuko ditu ikaslearengan eta irakaslearengan: berehalako erantzuna, berdintasuna, adostasuna, sinkronizazioa, erantzun zuzenak, arauak mantentzea, efizientzia lanean eta segurtasuna.
- Praktika bidezko estiloa: ikaslearen eta irakaslearen artean hartzen dira erabakiak. Koreografia bideratzerakoan ikasleak hartuko dituzte erabakiak: postura, espazioa, pausuen ordena, hasierak, amaierak, erritmoa, bitarteak, janzkera eta galderak.
- Elkarrenganako estiloa: bikoteka eramango da aurrera, bata egilea eta bestea hartzailea. Honi esker ikaskideen harremanak estuagoak bihurtuko dira.
- Autoebaluazio estiloa: ikasleak hartu beharko ditu erabaki gehienak. Gainera, bere burua ere ebaluatuko beharko du.
- Inklusio estiloa: ikasleei lan egiteko modu anitzak eskaintzen zaizkien. Helburua ikasle guztiak batzea, banakoari egokitu ahal zaizkion jarduerak egitea, ikaslearen arrakasta goraiatzea eta ikaslea independente bilakatzea da.
- Zuzendutako ikerkuntza estiloa: irakasleak hainbat galdera planteatzen ditu eta ikasleak erantzunak bilatu beharko ditu. Irakasleak koreografiaren helburua eta diseinua zehaztuko ditu bere galderetan eta hortik aurrera ikaslea izango da pentsalaria.
- Estilo dibergentea: ikasleak hartzen ditu gaiaren, ikerkuntzaren, diseinuaren eta asmakizunaren inguruko erabakiak. Hasieran estimulu bat jasoko dute, ostean erantzunak bilatu beharko dituzte eta azkenik soluzio bat bilatuko diote arazoari.
- Banakakoaren programa: ikasleak berak sortuko du galdera edo arazoa; irakasleak gaia zehaztuko du eta ondoren ikaslea izango da erabakiak hartuko dituena.
- Auto-irakaskuntzaren estiloa: irakaslearen estiloaren alderantzizkoa da, ikasleak hartuko baititu erabakiak.

## 2. Metodologia

Kantu eta koreografia sortzeko bideak hainbat etapa izan ditu. Hasieran, Txanela proiektuak dituen musika hutsuneak ikusita, unitate ezberdinei lotutako kantuak sortzea izan da asmoa, baina ikasleekin frogatu gabe. Ondoren, unitate bakarra hartzea eta kantua eta koreografia sortzea erabaki da, honetan ere ikasleekin lantzeko asmorik gabe. Amaieran, kantua eta koreografia sortu dira ikasle talde baten ezaugarrietara egokituz, ondoren hauekin praktikara eramateko.

Horrela ba, behin asmoa bideratuta, umeen kantugintzan dabiltzan hainbat musikagilerekin harremanetan jartzeko unea iritsi da, horien artean, Itsaso Arrieta, Pello Reparaz eta Xabier Zabala daudelarik. Horretarako hainbat galdera zehaztu dira eta azken biei korreoz bidali zaizkie; behin galderak irakurrita, Reparazek eta Zabalak bidalitako ahots-grabaketa bidez jaso dira erantzunak.

Itsaso Arrietarekin, aldiz, aurrez aurreko solasaldia egiteko aukera izan dela baliatuz, erantzunak idatziz bildu dira.

Behin datu guztiak bilduta, lanerako erabiliko diren datuak azpimarratu eta erantzunak kontuan hartuta kantua konposatzen hasi da. Horretarako, Sabin Bikandiren laguntza jaso da. Bikandik kantu bat konposatzeko zein pausu jarraitu behar diren




3. Irudia: Mikrofonoa

azaldutakoa izan da sortu beharreko abestia konposatzeko jarraitutako bidea.

Kantua behin sortuta, grabatzeko unea iritsi da. Grabaketa egiteko mikroa eta Audacity programa erabili dira eta instrumentuei dagokienean ahotsa, trikitia, txirula eta perkusioa egiten duen teklatu bat.

Kantua sortu ondoren, partitura idazteko Finale programa erabili da; non lehenengo ahotsaren, bigarren ahotsaren eta zubi musikalaren partiturak atera diren (ikus 4. eranskina).



4. Irudia: Audacity

Kantua sortu ostean eutsi zaio koreografia asmatzeko tarteari. Horretarako kantuaren letra, ikasle taldea eta gaia kontuan hartu dira. Ikasleek egiten dituzten mugimenduetatik abiatuta zehaztu da dantza, euskal dantzetako pausuak ere erabili direlarik.



Koreografia eta dantza behin prest daudela, ikasleei kantua erakusteko beharra dago, koreografiaren hainbat keinurekin batera. Ikasi eta gutxira, koreografia bere osotasunean landu da. Kantua eta keinuen ikaste prozesua aste bakarrean egin da, egunero goizeko bost minutuak honetarako hartu izan direlako.

Kantua irakasteko, ikasleei kantuaren letra erakutsi ostean, zatika landu, irakasleak abestu eta ondoren ikasleek errepikatuz landu da. Prozesu horretan koreografiako keinuak erabili dira, letra hobeto gogoratu eta prozesua errazago barneratzeko. Denbora tarte txikietan bideratu da ikasteko prozesua, ikasleak ez aspertzeko eta behin abesti osoa ikasita, egunero goizeko saioetan abestu da aste batean zehar, goizeko bost-hamar minutuetan.

Behin letra menperatuta, koreografia ikasteko unea heldu da. Prozesu erraza izan da, keinu nagusiak aurretik ikasita daudelako eta beraz, keinuen arteko loturak baino ez direlako ikasi behar izan. Horretarako, espazio handi bat erabili da eta imitazioz ikasi dira koreografiaren pausoak.

Azkenik, abestia eta dantza ikasi duen taldeak maila bereko beste ikasle talde bati erakutsi dio egindako lana, ikastetxeko areto nagusian denak batuz. Une hori gordetzeko ikasleen irudiak grabatu direnez, gaur egungo 3/2018 Lege Organikoa jarraiki eta indarrean dagoen Datu Pertsonalak babesteari eta Eskubide Digitalak bermatzeari buruzko araudia kontuan hartuz, ikasleek etxera eraman beharreko agiri bat prestatu da; bertan, ikasleen guraso edo tutoreek grabaketan parte hartzeko ikasleari baimena emanaz. (Ikus 1. eranskina) Ez da grabaketarik egin ikasleen baimenak bueltan jaso barik.

El tratamiento de los datos de los menores de catorce años, fundado en el consentimiento, solo será lícito si consta el del titular de la patria potestad o tutela, con el alcance que determinen los titulares de la patria potestad o tutela. (Boletín Oficial del Estado, 2018 )

### **3. Ikerketa**

Lan hau aurrera eramateko marko teorikoaz gain, kantua nola sortu eta umeen kantuek zein ezaugarri izan behar dituzten adierazi diguten hainbat adituri egin zaie elkarrizketa. Horrez gain, kantuen ezaugarriak aztertzeko kantu bilduma batzuk aztertu dira.

Sortutako kantua ume taldearen ezaugarrietara egokitzeko ahaleginean, ikasle taldearen behaketa bat ere egin da musikaren alorrean nolako jarrera, ohitura edo trebetasunak dituzten aztertzeko.

### 3.1. Elkarrizketen analisia eta interpretazioa

Ondorengo lerroetan, Pello Reparaz, Xabier Zabala eta Itsaso Arrietari egindako elkarrizketetan esandakoa interpretatuko da. Hasi aurretik, bakoitzaren aurkezpen txiki bat irakurri ahal izango da. Ondoren, hiru galdera nagusiren inguruan bilduta aurkezten da elkarrizketatuengandik jasotako informazioa.

Pello Reparaz (Arbizu, 1990) hainbat taldetan egon den abeslari eta konpositorea elkarrizketatu da lan honetarako, batez ere, bere azken lana den *Baloreak*-en inguruan galdetu zaio; hori baita, umeein egin duen azken lana. (10. eranskinean elkarrizketa osoa).

Xabier Zabala (Zarautz, 1967) etengabeko bilakaeran dagoen musikotzat hartzen du Kaabestri Ensemblek. Amagoia Mujikak (Pirritx, Porrotx eta Marimototx, 2012) bizirik dauden kantuak egiten dituela dio. Horrela ba, Zabalari egindako elkarrizketan umeentzako kantuen berezitasunei buruz galdetu zaio. (11. eranskinean elkarrizketa osoa).

Itsaso Arrieta (Bilbo, 1967) Euskal kantuen irakaslea eta bereziki haur kantetan aditua da. Hainbat urtean izan da haurtzaindegietako eta eskoletako hezitzaileen irakaslea eta horrez gain, azken urteotan, kanta tradizionalen eta kantuari lotutako hainbat ekintza kulturaletan parte hartzen dabil. (12. eranskinean elkarrizketa osoa)

#### **Nolako izan behar da kantua Lehen Mailako Hezkuntzan irakasteko?**

Elkarrizketatutako guztiek abestiaren helburua argia izatea garrantzitsua dela deritzote eta umeei edozein gairen inguruan hitz egin diezaiekegula uste dute.

“Euskal Herrian haurrei kokoloak izango balira bezala berba egin diegunaren sentsazioa daukat eta ez da horrela, gai sakonen inguruan ere hitz egin diezaiekegu, kontuan hartu behar da nola, baina gai sakonen inguruan ere hitz egin daiteke, dudarik gabe” (Reparaz, 2019).

Arrietak, horren aurrean, euskal kantugintzari egiten dio erreferentzia eta umeei abestu zaizkien lo kantak jartzen ditu adibide. “Abesti tradizionalak, hainbatetariko gaiak lantzen dituzte; bikote kontuak, hiletak, eguneroko kontuak... eta horrek argi uzten du umeen kantuek edozein gairi eusten diotela, beti ere modu ezberdinez esanda” (Arrieta, 2019).

### **Zein ezaugarri musikal hartu behar da kontuan umeentzako kantuak sortzerako orduan?**

Edozein kantu sortzerako orduan kontuan hartu beharrekoak dira zehaztu behar direnak elkarrizketatuen arabera. Reparazek HUK delakoak txertatzea aipatzen du; hau da, abestia amaitzen denean oroitzen ditugunak.

Reparazek tesiturari dagokionean, 8-13 urte dituzten *Baloreak*-en abeslariak, tesitura nahiko altua dutela dio baina zabala ere badutela ziurtatzen du. “Ez nuke esango tesitura jakin bat izan behar dutenik abestiek, goitik asko iristen direlako baina behetik ere eroso ibiltzen dira”.

Zabalak, bere ibilbide osoan ikasitakoaren arabera, lehenengo interpretea nor den argi izan behar dela dio; umeak edo umeentzat abestuko duen gonbidatu bat (bere kasuan, pailazoak). Hala ere, umeak oktaba bateko tesituran ibiltzen direla dio (La-La; La-Do).

Erritmoari erreferentzia eginez, hirurek egiten dute bat jarraitu beharreko erritmo zehatz bat ez dagoela esaterakoan. Animikoki ezberdin egon daitezke umeak une jakin batean, helduok bezala. Denok ditugu sentrazioak, sentimenduak...

Arrietak erritmoa adinaren arabera doala uste du, 7-8 urte bitarteko umeak kontuan hartzen badira erritmoa markatua izatea eta bitarra izatea garrantzitsua dela dio; batez ere, zentzumenak garatzen dituztelako eta abesti argi eta markatuek, beraien ibilkeraren antzekoek, lana errazten dietelako.

Abestiaren luzeraren inguruan hainbat iritzi irten dira, Zabalak honakoa dio: “gero eta laburragoak, gizarteak hori markatzen digu”. Arrietak ere bat egiten du Zabalarekin, baina gizarteari begiratu beharrean ikasleen atentzioari jartzen dio arreta, eta umeek ezin dutela denbora luzez atentzioa mantendu dio. Hala ere, kantu luzeak egin behar izatekotan kontuan hartu beharreko estrategia ere aipatzen du Arrietak: sorpresa faktorea. Hau da, kantua luzea bada erdialdetik umeen atentzioa berriro ere harrapatuko duen faktore bat txertatu behar da.

Reparazek, aldiz, ez du ezer aholkatzen; eta abestiaren gaiarekin bat egin beharko lukeela dio “bizitza laburra dela adierazten badu adibidez abestiak, kantu labur bat egitea aproposa da baina bestela ez nioke garrantzirik emango luzerari”.

### **Zein onura du umeentzat kantatzeak?**

Reparazen hitzetan etorkizuneko giltza da musika: “Onura ez nuke esango baina etorkizunean badu zerikusirik eta eragina, ardura handiko espektroa da eta lana arduraz, gogoz eta ilusioz egiten bada etorkizunean eragin positibo bat izan dezake.”


Itsasoren ustez denak dira onurak, giza abileziak garatzen ditu eta sentimenduak, pentsamoldeak, sentrazioak... garapenean asko laguntzen digu, askotan ahaztu egiten ditugun esparru horiek, alegia. Umeak kantatzen duenean sentitu eta pentsatu egiten duela dio Arrietak, eta horrekin batera martxan jartzen dituela alde emozionala, kognitiboa, soziala eta motorra; “dena da ona musikak dakarrena”.

Zabalak ere Arrietarekin egiten du bat eta umeentzako soilik ez, denontzat dela onura dio. Gainera, azken urteotan “gero eta gehiago entzuten dela musikaren garrantziaz hitz egiten” dio. Hortaz, Zabalak ere aipatzen du garrantzitsua dela gorputzarentzako, norberarentzako, sentrazioak eragiteko eta sentitzeko, espresio bideak esperimendatzeko... “oso garrantzitsua da kantatzea, bai musika orokorrean.”

### 3.2. Umeentzako kantuen analisisa eta interpretazioa

Euskal kantagintzan umeei bideratutako andana kantu eta bilduma aurki daitezke. Ondorengo lerroetan kantagintzaren hainbat bilduma aurkeztuko dira, horien hainbat ezaugarri aipatu eta bilduma horiek haien artean dituzten ezaugarriak azalduko dira. Batik bat erreparatu diren ezaugarriak honakoak izan dira: erritmoa, testua, armonia, forma, errepikapenak eta helburua.

**Imanol Urbietta** musikari eta idazle zarauztarrak arrakasta izan duten hainbat bilduma kaleratu zituen; hala nola, behin betiko, Jon Braun, Ran Rober Ran, Txantxibiri, Txiki txiki txikia... Horiek artean, 2010ean “Aitona amonekin kantari” bilduma atera zuen 24 abestiz osatua. Bilduma hau aztertzerako unean, 24 horietatik hamabik hasiera antzekoa duela ikus daiteke; kantuaren gaia biltzen duen hots bat; adibidez, Txio-txio kantan txoriak, algaraz kantuan irribarreak, oilategia kantuan oiloak, errekatxoa abestian ura... Erabiltzen duen testua oso sinplea da eta kantuaren nondik norakoa oso argia da hasieran entzuten diren soinu-hotsetatik hasita.



5. Irudia: Aitona- amonekin kantari diska

Gaur egun gaztetxoenen artean arrakastatsua den **Kantu Kolore** taldeak ere hainbat abesti kaleratu ditu. Haurrek musikaren bidez ikasten dutela ikusita eskoletan landu nahi lituzketen kantuak sortzea izan zen batez ere hauen helburua.



6. Irudia: Amets, Kantu kolore diskoa

Kaleratu duten bildumari erreparatuz, kantu gehienek helburu didaktikoa dutela bistakoa da eta erabiltzen duten testua, askorik ez bada ere, transmititu nahi dutenarekin bat dator. Kantuen ezaugarriei dagokienean, kantuaren lelo gehienetan bi ahots erabiltzen dituztela ikus daiteke eta Imanol Urbietaren kantuetan bezala, hainbat abesti soinu hotsekin hasten direla. Estrukturari dagokionean, kantu gehienek ABA eskema erabiltzen dute eta entzun daitezkeen zubi musikalak oso sinpleak dira. Erritmoari dagokionean, erritmo markatua eta bitarra erabiltzen da batez ere, adibidez dinosauroak abestian (dinosauroen pausuak irudikatuz). Abiadurari dagokionean, abiadura ezberdinetako abestiak entzun daitezke. Hainbat HUK ere erabiltzen dituzte haien kantuetan, esaterako, Zapia abestian geldione esanguratsu batzuk egiten dituzte.

Arestian elkarrizketatu dugun Pello Reparazen azken proiektua **Baloreak** bildumaren abestiak ere aztertu dira lanean. Baloreak proiektuak giza baloreak Euskal Herriko txoko guztietara musikaren bidez helarazteko sortua izan zen 2018an, Euskal Herriko 8 eta 14 urte bitarteko bost umeren artean eta P. Reparazek zuzendua.



7. Irudia: Baloreak proiektuaren portada

Proiektu honetan dauden kantuak aztertu ditugu eta Kantu Koloreko bildumaren antzera, helburua didaktikoa da batik bat eta erabiltzen dituzten umeen ahotsak eta hitzak oso esanguratsuak dira, azken finean proiektuaren helburua oso markatua da. Kantu hauetan, batez ere ahots bakarrean abesten dira, salbuespenak salbuespen, baina kantu gehienetan leloan bi ahots abesten dituzte umeek. "Ezberdin izatea" abestian, esaterako, hainbat errepikapen sartzen dituzte, batez ere leloarenak eta abestia bukatzerako, birritan abesten dira leloak. Erritmo bitarra erabiltzen dute eta abiadurari dagokionez, adibide ezberdinak aurkitzen ditugu, badaude abesti lasaiak eta beste batzuk arinak direnak. Zubi musikalak nahiko sinpleak dira, abestiaren akordeak errepikatuz moldatutakoak.

**Kurkuluxetan** dugu Bilboko Kafe Antzokia eta Zenbat Gara elkartearen eskutik 2000.urtean jaioa, haur eta gazteen hezkuntzan eta baloreetan zenbait kultur ekimen bultzatzeko asmoz. Hainbat disko kaleratu dituzte:

Bonbardino, Amama pantxika, Hamaika Koloretan dantzan, Neguko haur kantak, Pepita liburu magikoa eta Ongi etorri lagun.

Hainbat abesti aztertu ditugu eta beraien artean badutela zerikusirik ohartu.



8. Irudia: Kurkuluxetan elkartearen logoa

Ondorengo lerroetan disko ezberdinetako kantu batzuren ezaugarriak aipatuko dira: adibidez, Hator gurekin Mari Domingi abestiko errepikan ahotsak sartzen dituzte, errepikapenez josita dago kantua eta hitz joko andana ere erabiltzen dute. Estrukturari dagokionez, beste hainbat abestiren antzera, A B Instrumentala A B, estruktura erabiltzen da. Ama lurra kantuan, hainbat geldiune eta oihu erabiltzen dituzte HUK gisa.

Hortaz, bilduma guztietako kantuak aztertu ondoren (Taula ikusteko ikus 2. eranskina), esan daiteke umeentzako kantu bat egiterakoan kontuan hartzekoak oso argiak direla (begira 3. Eranskina).

### 3.3. Ikasle taldearen ezaugarriak

Ikasle taldeari dagokionean, Kirikiño ikastetxeko hogeita sei ikaslez osaturiko LMH 2.mailako gela izan da kontuan hartu dena kantua eta koreografia sortzerako unean.

Hainbat ezaugarri bereizgarri dituzte ikasle hauek zeinak egunero-egunero behatu diren zuzeneko behaketa baten bidez praktikaldiko bi hilabeteetan zehar.

Praktikak hasi eta gutxira *Gora Gutenberg, gora Markoni!* gaiarekin hasi ziren eta izenburu horrek sekulako arrakasta izan zuen ikasleengan; esan beharra dago ikasle taldea oso berritsua zela. Jarduera luzeekin asko aspertzen ziren eta nahiago zuten jarduera laburrak eta ugari egin gutxi batzuk eta luzeak egin baino. Txanela proiektuan ariketaren batean kanturik agertuz gero, izugarri pozten ziren eta gogotsu abesten zituzten bertan agertzen ziren abestiak.

Praktikaldia egindako ikastetxean, ageri denez, musikari berebiziko garrantzia ematen diote eta hori nabari da ikasleengan. Egunero-egunero goizeko hasierako bost minutuetan ikasleek beraiek aukeratutako musika entzuteko eta abesteko aukera izaten dute. Normalean, kantu biziak aukeratzen dituzte; hau da, erritmo bizi eta markatua

duinak. Horrez gain, astean zehar badute musikari eskainitako tarte bat eta ordu horretan, kantuari garrantzia ematen zaio. Are gehiago, ikasturtean zehar Musika astea antolatzen dute eta bertan ikasle talde bakoitzak kantu bat abesten du gainerako ikasleen aurrean. Eskolaz kanpoko kantu jarduerak ere badaude ikastetxean; kantagintza, esaterako. Kantagintzan hirugarren mailatik gorako ikasleek hartzen dute parte eta ondoren, prestatutakoa ikasle txikienen artean aurkezten dute.

Ikasle talde honek kantuen leloak abesteko joera handia dauka, autobuseko bidaietan edo marrazteko denbora librean dutenean. Hortaz kantatzeko grina erakusten dute eta badirudi, kantuen leloen mezuei nolabaiteko garrantzia ematen diotela.

#### **4. Sorkuntza: Komunikatzaile gara gu**

Atal honetan proposamenaren nondik norakoak azalduko dira; marko teorikoa kontuan hartuta errealitatera salto egiteko unea da. Horretarako, elkarrizketetatik jasotako irispideak aintzat hartuta ikus-entzunezko baliabideak sortu dira: kantua eta koreografia.

##### **4.1. Kantaren sorkuntza**

Ikerketaren arabera, umeen kantuek izan behar dituzten ezaugarriak behin jakinda, kantua sortzeko honakoak hartu dira kontuan ikasle taldeari egokitzerako orduan:

Kantaren Helburua: Txanela proiektuko Komunikabideak unitatearen edukiak barneratzea.

- Testua: ikasgelako ikasleei egokitutakoa izan da eta gainera, gaien zehar landutako hitzak erabili dira. Hauek ikasleen interesekoak izan dira; gaiaren izenburuak grina sortzen du ikasleengan eta izenburuaren hitzak sartu dira: “Gora Gutenberg, gora Markoni”.
- Erritmo bizia: gaiarekin bat egiten duelako eta gaur egun mugikorrean edo telebistan jasotzen ditugun informazio edo berrien arintasunarekin bat egiteko. Gainera, ikasgelan musika entzuten dutenean gela honetako ikasleek musika biziagoa nahiago dutela ikusi da.
- Armonia: laguntza instrumental sinplea erabili da, akorde bidez.
- Forma: kantua (A B) - Instrumentala - Kantua (A B B). Hainbat errepikapen erabili dira, batez ere leloaren atalean honi garrantzia emateko, izan ere hainbat egoeretan ikasleak abestien leloak soilik abesten dituztela behatu baita.

- Ahotsak: kantuaren estrofak ahots bakarrean abestu dira; leloa, aldiz, bi ahotsetara egin da aztertutako kantu gehienen antzera.
- Luzera laburrekoa: gizartearekin bat egiteko eta mugikorrean irakurtzen ditugun berrien luzerarekin bat egiteko. Horrez gain, ikasle talde hau ariketa luzeekin nekatzen denez, beraientzako egokiena kantu laburra dela pentsatu da.

Kantua konposatzeko unean Sabin Bikandi etnomusikologoarekin harremanetan ere jartzeko aukera izan dugu. Bikandik berak kantuak eta musikak sortzeko zein prozedura erabiltzen duen azaldu digu eta hori izan da kantua sortzeko erabili den prozedura:

- Neurria eta forma pentsatu: elkarrizketatuek esandakoaren arabera bitarra eta ez oso luzea.
- Letra idatzi: elkarrizketatuek esandakoaren arabera, helburu argia, lexiko erraza eta ikasleen interesekoa.
- Leloaren edo estribiloaren musika asmatu: erritmo biziduna, ikasleek eta gizarteak estimatzen dutena kontuan hartuz erakargarria egiteko.
- Armonia pentsatu: akordeak zeintzuk izango diren pentsatu eta zubi musikala konposatu akorde sinpleekin.
- Koplen musika konposatu: leloan eta armonian oinarrituta
- Azken ukituak eman: leloan bi ahots erabiltzea, HUKak txertatzea...

(Kantuaren emaitza entzun eta ikusteko begira 5, 6, 7 eta 8. eranskinak)

#### 4.2. Koreografiaren sorkuntza

Kantua sortzeko soilik ez, **koreografia sortzerakoan** ere ikasle taldea eta gaia kontuan hartu da. Hortaz, ikasleek egiten dituzten mugimenduak beraiekin bat datoz, egunerokotasunean egiten dituzten keinuak agertzeaz gain, euskal dantzetako hainbat pausu ere agertzen dira, ikasleen %40ak euskal dantzak egiten baititu.

Horrez gain, aukeratu diren pausuek abestiarekin bat datoz; azken batean, keinu eta mugimenduak hitzik gabeko komunikazioa dira eta gaia komunikazioa denez gero, koreografia bera bakarrik eginda ere (kantuaren letrarik gabe) ulertzeko modukoa izateko.

Honela definitzen dute dantza Martínezek eta Zagalazek Roldanen testuan (2014):



Es una de las formas de comunicación y expresión más ricas que aprendida y escenificada en forma de coreografía reúne los principales requisitos de interacción grupal, desde la desinhibición y motivación, hasta el desarrollo de las principales capacidades expresivas, cognitivas y físicas, que favorecen la integración y socialización del individuo. (18.or.)

## 5. Frogaketa

Lan honetan sortutako ikus-entzunezkoak, kantua eta koreografia, ez dira bere horretan geratu eta ikasle taldearekin frogatu dira egiazkotasuna eta praktikotasuna bermatzeko.

Horretarako ikasle taldeari kantua irakatsi zitzaizen eta ondoren koreografia aste bateko denboran.

Egun handia izan zen bideoaren grabazio eguna. Goizean goizetik urduritasuna sentitzen zen gela barruan. Kamera eta ikusleen aurrean koreografia zuzen egiteko gogoia agertzen zuten ikasleek eta kantu zein koreografia etxean frogak eginez zetzozela azpimarratzekoa da. Lehenengo, froga batzuk egin ziren grabaketa egin baino lehen eta gainerako ikasleak iritsi aurretik. Iristerakoan ikasleak urduri zeuden agertokiko oihalaren atzean baina isilik eta pazientziaz itxaron zuten inongo arazorik eman gabe.

Ikasturte bereko gainerako ikasleei dagokionez, pozik hurbildu ziren ikuskizuna ikustera eta bukatzerakoan itzelezko txaloak eman zituzten. Hori gutxi balitz, leloaren hainbat hitz geratu zitzaizkien gogoetan eta kalera irten ziren denak dantzan eta kantuan, gogoratzen zutena errepikatuz. Zoriontzeaz gain galdera bakarra egin zuten: “Zergatik ez dugu gure klasean ere berdina egiten?” Beraz, gustukoa eta probetxuzkoa ikusi zutenaren seinale da hori. Musikako irakaslea ere bertan izan zen eta merezimendua goraiatu zuen ikasleekin horrelakoak antolatzeak duen zailtasuna kontuan hartuz eta bere esperientziak kontatuz.

Zerbait konpontzekotan, beti baitago zer konpondu, ikasleei aurkezpenaren egunean antzeko arropa ekartzeko eskatzea litzateke, taldearen irudi bateratuagoa emateko asmoz. Horrez gain, koreografia lantzeko denbora gehiago erabiltzea eskertuko litzateke; modu horretan ikasleek konfiantza handiagoa erakutsiko lukete agertokian eta disfrutatu zutena baino gehiago disfrutatuko lukete. Hala ere, ulertzekoa eta zilegi da denbora tarte mugatu bat eman izana prozesu honi guztiari.

Ikasleekin frogaketa ikusteko joan 6. eranskinera.

## 6. Emaitzak eta ondorioak

Ikasleekin egindako praktika zinez arrakastatsua dela esan beharra dago. Kantatzeko grina sortu da beraiengan, autobuseko bidaietan abesten dute ikasleek kantua. Niretzako ere oso aberasgarria izan da, musikak, kantuak eta dantzak duen garrantziaz ohartu bainaiz edozein eduki barneratzeko orduan. Gainera, gai horren inguruan adituak diren hainbatekin kontaktua izateko balio izan dit eta beraiengandik ikasteko.

Gradu Amaierako Lanaren helburuei eutsiz, gaiaren inguruko informazioa bildu dut nire aurretiko ezagutzekin bateratzeko eta modu horretan lagungarriak izango diren ezagupenak bilduz marko teorikoa osatzeko. Horrekin batera, hainbat ikertzailearen ekarpenei ezker, edozein informazio edo eduki barneratzerakoan, kantuak eskaintzen dituen onurak argudiatu ahal izan ditut. Kantua eta dantza nola irakatsi ere ikertu dut ondoren praktikan jartzeko. Lan mardula izan bada ere, motibagarria izan da etorkizuneko irakasle izango naizen heinean, kontuan hartzekoa izango baita.

Ikasleek hasieran zailtasunen bat izan dute koreografiarekin baina berriro azalduta eta astiroago eginda bideratzea lortu da. Gainera, ikasleek laguntza handia eman diote elkarri.

Kantuaren ikaste prozesuan, aldaketaren bat egin beharko nukeela uste dut, ikasleei kantuaren letra eman beharrean Valenciak dioenez imitazioz irakastea aproposagoa litzateke (Romerok aipatua, 2017). Azken finean, ikasleak oso gazteak dira eta batzuk irakurtzeko ahaleginak egiten zeuden bitartean, beste batzuk nire ahotsa imitatzen zebiltzan; eta bistakoa izan da, bigarren horiek hobeto eta lehenago ikasi dutela kantua.

Proiektuarekiko jarrera ere, jeneralean, oso ona izan da eta oso inplikaturata egon dira. Oso ondo bereganatu dute jarduera berri hau eta zeharka, ez baitira konturatu, gaiaren edukiak barneratu dituzte: komunikabideak. Hortaz, ikasleen parte-hartzea ohiko klaseetan baino handiagoa izan dela esango nuke, kontziente ez baitira izan ingurune egiten ari zirela. Hala ere, esan beharra dago, ikasleren batek edo bestek lotsagatik jarrera ezkorra adierazi dutela hasieran, baina ondoren oso pozik agertu dira eta inplikazioa erakutsi dute. Hortaz, taldean oso ondo lan egin dute guztiek eta lortutako emaitza pozgarria izan da, izan ere inplikazio maila eta talde lana ohiko klaseetako baino handiagoa izan dela esango nuke.

Gurasoen inplikazioa ere kontuan hartzekoa da; izan ere, seme-alabei proiektuan parte hartzeko baimena eman diete inongo arazorik jarri gabe eta grabaketa egunean erabili

beharreko arropa jarri diete seme-alabei. Beraien inplikaziorik gabe, proiektu honek ez zukeen emaitza berdina izango.

Ikastetxeko irakasleari dagokionean, oso jarrera baikorra azaldu du une oro eta laguntza eskaintzeko prest egon da. Proiektuan hasiera-hasieratik sinetsi du eta egindako lan handia goraiatzen ibili da proiektua azaldu nion unetik. Grabazioen bukaeran egindako impresio trukaketan esperientzia ezin hobea izan dela azaltzen da. Bera ere musikaren alorrekoa izanez gero, aurrerantzean ere, horrelako proiektuak garatzeko asmoa erakusten da; benetan ere baloratzen baita ikasleen motibazioa eta edukiak barneratzeko bide egoki moduan. Haren esanetan, lortutako talde kohesioa ere aipatzekoa da, proiektua egin bitartean ez baita inolako arazorik izan ikasleen artean. Izan ere, ikasgela bateko ikasleek talde-kontzientzia hartzea, ikaskuntza kolaboratzailearen atzean dauden balioak (elkartasuna, elkar laguntza, ezberdinak errespetatzea...) lantzea eta “ikaskuntza-komunitate” bihurtzea oso garrantzitsua da.

Azkenik, esan behar dut, helburuak bete direla; ikasleek kantua eta koreografia ikasi dute eta horrekin batera edukiak barneratu. Gainera, taldean egin dute lan kooperazioa landuz eta haien gorputzaren mugak zeintzuk diren ezagutuz modu motibagarri batean. Hori egiaztatzeko, atxikita dagoen bideoa begiratu baino ez dago, ikasleak pozik dantzan eta kantuan.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak

- Almarache, M. (2012). *Metodo Dalcroze*. Educamus. [Blog] 2019-04-05ean berreskuratua, hemendik: <http://www.educamus.es/index.php/metodo-dalcroze>
- Amaranta, G. (2012). Las bases psicológicas de la educación musical, (8), 69-71
- Arrieta, I. (2015). *Haur kantu jokoen tailerra* (2015ean jasotako tailerra).
- Coronado, M.L. & García, J. (1990). De cómo usar la canciones en el aula. In II *Congreso Nacional de la ASELE. Español para Extranjeros: Didáctica e Investigación*, (2), 228-233.
- Desarrollo evolutivo en la infancia y adolescencia (7 a10 años). (2015). [Blog]. 2019-04-22an berreskuratua, hemendik: <https://institutoserca.com/blog/desarrollo-evolutivo-en-la-infancia-y-adolescencia-7-a-10-anos/>
- Estadios del desarrollo de Wallon (2013) *Psicoterapeutas.eu hezkuntza portala*. 2019-04-12an berreskuratua, hemendik: <http://psicoterapeutas.eu/estadios-del-desarrollo-de-wallon/>
- Estal, X (2017). La música, elemento cultural, educativo e integrador. *El periodico*. 2019-05-09an berreskuratua, hemendik: <https://www.elperiodico.com/es/entre-todos/participacion/musica-elemento-cultural-educativo-integrador-123160>
- España. Ley 3/2018, abenduaren 5ean, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.. Boletín Oficial del Estado2018ko abenduaren 5ean, 294.znbk, 1197802.orr
- España. Ley 3/2018, abenduaren 5ean, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.. Boletín Oficial del Estado2018ko abenduaren 5ean, 294.znbk, 1197802.orr
- Espinar, I. (2017). Las competencias clave y la música. 1-5.
- Eusko Jaurlaritz. (2019). Antolaketa eta metodologia inklusiboa.
- Gardner, H. (1983). Inteligencias múltiples. *Paidós*.
- Grove, G. (1980) *The New Grove Dictionary of Music and Musicians*. London: Macmillan publishers.
- Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila (2015). Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum. 236/2015eko Dekretua. II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea 2019-04-20an berreskuratua, hemendik: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_2\\_proyec/adjuntos/OH\\_curriculum\\_osa.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osa.pdf)
- Irakaskuntza-metodologia aktiboa “eragin” programan.(2006). 2019-05-12an berreskuratua, hemendik:

<https://www.ehu.es/documents/1870360/2173146/Caracteristicas-metodologias-activas-eusk.pdf/8e4d2b69-84b5-4c27-8ea8-c7445bb84383>

Juan, A.D., García, I.M.. (2016) Las canciones como herramienta pedagogicas para la enseñanza del inglés en la Educación Primaria.– *Alicanteko unibertsitatea – Revista electronicalenguaje*, 3(07), 2-20.

Las etapas del desarrollo evolutivo según distintos modelos teoricos. *Educarchile hezkuntza portala*.(1)1-7.

La música provoca las mismas emociones en todo el mundo, según un estudio. (2009) *El País*. 2019-04-05ean berreskuratua, hemendik:  
[https://elpais.com/cultura/2009/03/20/actualidad/1237503604\\_850215.html](https://elpais.com/cultura/2009/03/20/actualidad/1237503604_850215.html)

Larrañaga, I., Alonso, A., & Bidezabal. (d.g) A. Hezkuntza, Lan Kooperatiboa - Iraurgi Ikastetxea, Azpeitia - Iraurgi Ikastetxea. 2019-05-6an berreskuratua, hemendik:  
<https://www.iraurgi.eus/eu/lan-kooperatiboa>

Liliana, M., Morales, R. & Díaz, W. (2014). La música como recurso pedagógico en la edad preescolar. *Dialnet*, (1), 1-7.

Longueira, S. (2011). Aquisición de competencias a través de la educación musical. Aproximación al desarrollo de la responsabilidad y la autonomía en la educación general. *Universitat Barcelona*. 3-13.

Manzano, Sagrario. (2016). ¿Por qué olvidamos lo que hemos estudiado al instante de terminar un examen?. BlueBBV. 2019-05-04an berreskuratua, hemendik:  
<https://www.bluebbva.com/2016/01/por-que-olvidamos-lo-que-hemos-estudiado-al-instante-de-terminar.asp>

Marcela, J . (2015). Del juego a la técnica: metodologías para la enseñanza de la danza. *Universidad Distral Francisco José de Caldas*. 16-27.

Mendez, María. (2018). El poder de la música contra el alzhéimer. Rtv. 2019-05-04an berreskuratua, hemendik: <http://www.rtve.es/noticias/20180317/poder-musica-contra-alzheimer/1697863.shtml>

Mosquera, I. (2013). Influencia de la música en las emociones. *Realitas, Revista de Ciencias Sociales, Humanas y Artes*, 1 (2), 34-38

Muy interesante. (2013). La importancia del ritmo. Prensa libre. 2019-05-05ean berreskuratua, hemendik: <https://www.prensalibre.com/vida/escenario/ritmo-musica-lectura-letras-leer-0-1000700147/>

Oihartzabal, L. (2003). Adimen mota ezberdinak. *Hik Hasi aldizkaria. Monografikoa*, (1)

Pérez, L. Escuchar-oir. 2019-05-11n berreskuratua, hemendik:  
<https://educacion.ufm.edu/escuchar-oir/>

¿Por qué recordamos la letra de una canción y no lo que estudiamos para un examen?

- (2017). *La información*. 2019-05-04an berreskuratua, hemendik: [https://www.lainformacion.com/asuntos-sociales/interes-humano/recordamos-letraciones-estudiamos-examenes\\_0\\_967704341.html](https://www.lainformacion.com/asuntos-sociales/interes-humano/recordamos-letraciones-estudiamos-examenes_0_967704341.html)
- Rivas, Rosa. (2019). Educación. Cómo aprender ciencias bailando y cantando. El País. 2019-05-03an berreskuratua, hemendik: [https://retina.elpais.com/retina/2019/01/03/talento/1546532708\\_003260.html](https://retina.elpais.com/retina/2019/01/03/talento/1546532708_003260.html)
- Rodriguez, Susana. La importancia de la música en la educación [Blog]. 2019- 05- 03an berreskuratua, hemendik: <https://www.emagister.com/blog/la-importancia-de-la-musica-en-la-educacion/>
- Roldán, S. (2014). La coreografía a través de la expresión corporal en el primer ciclo de educación primaria. 2-52.
- Romero, E. M. (2017). La música y el desarrollo integral del niño 10(1), 9-13
- Rosano, A. (2014). La voz en el aula de primaria. *Universidad de Cadiz*. <https://rodin.uca.es/xmlui/bitstream/handle/10498/16733/Trabajo%20final%20correcciones%20finales.%20pdf.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Sanz, Elena. (d.g). ¿Se aprende más rápido un idioma con música?. Muy interesante. 2019-05-04an berreskuratua, hemendik: <https://www.muyinteresante.es/curiosidades/preguntas-respuestas/se-aprende-mas-rapido-un-idioma-con-musica#>
- Savall, J. (2015). Cantar nutre el cerebro infantil. La voz, el primer instrumento musical - Terra Mater. 2019-04-12an berreskuratua, hemendik: <https://terramater.es/cantar-nutre-el-cerebro-de-los-ninos-la-voz-el-primer-instrumento-musical/>
- Viña, B. (2013). Escuchar no es simplemente oír sino comprender [Blog]. 2019-05-11n berreskuratua, hemendik: <https://vallededempleo.wordpress.com/2013/05/10/escuchar-no-es-simplemente-oir-sino-comprender/>
- Zetaz ari gara proiektuen bidezko metodologia aipatzen dugunean? Zein dira metodologia horren ezaugarriak? Eta abantailak (2019). *Hik Hasi*. 2019-05-11n berreskuratua, hemendik: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20090701/zertaz-ari-gara-proiektuen-bidezko-metodologia-aipatzen-dugunean-zein-dira-metodologia-horren-ezaugarriak-eta-abantailak>

**Eranskinak**

**1. Eranskina. Irudia erabiltzeko baimen eskaria**

**IRUDIA ERABILTZEKO BAIMEN ESKARIA**

..... jaun/andreak, NAN: ..... eta  
helbidea:.....Herria:.....PK.:.....  
.....

BAIMENA ematen dio ..... jaunak/andreak  
azken hiru hilabete hauetan ikastolan egon den Katalin Zarate ikasleari,  
..... bere seme-alabaren irudia grabatzeko eta Gradu  
Amaierako Lanaren defentsa egunean erakusteko.

Material didaktiko horrek izaera unibertsala, doakoa eta irekia izango du, eta soilik  
hezkuntza alorrean erabiliko da, eta inoiz ez merkataritza-asmoetarako.Ondorioz,  
erabileraren ondoriozko ekintzek eta produktuek ez dute inolaz ere diru-irabazirik  
eragingo.

.....-n, 20...ko .....aren .....-an.

Sinatua:

**AUTORIZACIÓN USO DE IMÁGENES**

D/Dña....., DNI: ..... y con  
dirección.....ciudad:.....CP:.....  
.....

D/Dña .....AUTORIZA a Katalin Zarate, la  
alumna en prácticas durante los últimos tres meses, para grabar al aulmno/a  
..... con fin de presentarlo en la defensa del Trabajo Fin de  
Grado.

Este material será de carácter universal y abierto; el cual solo se utilizará en el ámbito  
educativo, y nunca para un uso comercial. Por lo tanto, este producto no tendrá  
ganancias económicas.

Y para que así conste firmo la autorización en (municipio)..... A (día).... de  
(mes)..... de (año).....

Firmado:

**2. Eranskina. Kantuen ezaugarrien taula**

Ezaugarriak	Helburua		Luzera		Erritmoa		Armonia		Forma		Ahotsak		
	Argia	Ez-argia	Laburra	Luzea	Bitarra	Markatua gabea	Markatua	Simplea	Akordeak	AB ins. AB enak	Errepikap	Bakarra	Bi ahots
Aitona amonekin kantari													
Amets, kantu kolore													
Baloreak													
Kurkuluxetan													

**3. Eranskina. Kantua egiteko ezaugarriak**

Helburua	Helburu argia izan behar du abestiak hasieratik.
Testua	Argia eta helburuarekin bat datozen hitzekin.
Erritmoa	Bitarra eta argia; baina abiadurak ez du garrantzia handirik, motela edo azkarra izan daiteke.
Armonia	Laguntza instrumental sinplea, kantuan zehar erabili diren akordeak erabilita.
Forma	A B A aproposena, zubi musikalekin eta leloak errepikatuz.
Ahotsak	Ahots bakarrean aproposagoak, baina leloan bi ahots txertatzea aproposa da.
Luzera	Laburra bada hobeto, ikasleek errazago hartuko dute.



#### 4. Eranskina. Kantuaren partiturak

### Komunikatzaile gara gu!

Hitzak: Katalin Zarate Arrieta

Musika: Katalin Zarate Arrieta

1. ahotsa

The musical score is written on a single treble clef staff in 4/4 time. It consists of four lines of music. The first line starts with a whole rest, followed by a quarter rest, then a quarter note G4, and continues with eighth and quarter notes. The second line starts with a measure rest, followed by eighth and quarter notes. The third line continues with eighth and quarter notes, including a measure rest. The fourth line starts with a measure rest, followed by eighth and quarter notes, and ends with a double bar line.



# Komunikatzaile gara gu!

Musika eta hitzak: Katalin Zarate Arrieta

Zubia

5

The image shows two staves of musical notation for the piece 'Zubia'. The first staff is labeled 'Zubia' and contains a melody of eighth notes in a 4/4 time signature. The second staff starts with a measure rest marked with a '5' above it, followed by a continuation of the melody. The piece concludes with a double bar line.

## 5. Eranskina: Abestiaren letra

### KOMUNIKATZAILE GARA GU!

Kontatzeko beharraz  
heldu zan gutuna  
ta inprenta ekarri  
Gutenberg kutunak

Haria utzi dugu  
egin leku honi  
belarriak adi  
ta esan gora Marconi!

Bai, beti esan bai elkarren berri behar dugu  
Bai, beti esan bai komunikatzaile gara gu! (x2)

Baina ezer ez galtzeko  
oin ez galdu bista  
mundura gogor dator  
gure telebista!

Eta azkena iristen  
gaurko interneta  
ordenagailuakin  
edukiz beteta!

Bai, beti esan bai elkarren berri behar dugu  
Bai, beti esan bai komunikatzaile gara gu! (x2)



## 6. Eranskina: Frogaketa bideoa

[Bideoa ikusteko egin Klik hemen](#)

## 7. Eranskina: Audacity artxiboak

[Audacityko artxiboak ikusteko egin Klik hemen](#)

## 8. Eranskina: Komunikatzaile gara gu kantua

[Komunikatzaile gara gu abestia](#)

## 9. Eranskina: Finale artxiboak

[Finale artxiboak ikusteko egin Klik hemen](#)

## 10. Eranskina: Peio Reparazi elkarrizketa

- Zer hartu behar da kontutan umeentzako (7-8 urte ingurukoentzako) kantuak sortzerako orduan?

Intentzio kreatiboak definituak izan behar dira, zein den helburua.  
Kantuan sartu nahi dugun informazioa argi izan eta kanpoko faktoreekin

informazioa kontrastatu behar bada, egin, berariazko informazioa emateko. Euskal Herrian hurrei kokoloak izango balira bezala berba egin diegu eta ez da horrela, gai sakonen inguruan ere hitz egin diezaiekegu, kontuan hartuta nola, baina gai sakonen inguruan ere hitz egin daiteke.

- Badago adin tarte bakoitzerako ezinbestean errespetatu beharreko arau edo ezaugarririk?

Tonuan egon daiteke garrantzia edo diplomazian, hitzak neurtzean. Adinez oso txikiak direnean argiak izan behar dugu; kantuaren bidez umeei kantuaren ideia ondo ulertuko dutela ziurtatzeko, adinez gorantz goazen heinean diplomazia hori aldatu daiteke entzuleek kantuaren zentzua interpretatuko dute eta.

- Zein da haur edo umeentzako erregistro/tesiturarik egokiena?

8-13 urte Baloreak proiektuan tesitura nahiko altuak erabili ditugu baina nahiko zabala dela esan daiteke. Beraz, ez nuke esango tesitura jakin bat erabili behar denik umeen abestietan goitik asko iristen direlako baina behetik ere erosi ibiltzen direlako. Beraz, ume taldearen arabera izango da.

- Eta badago abestiak jarraitu beharreko estruktura zehatzik?

Gaiarekin bat etorri behar dela uste dut nik. Esaterako, asperduraren inguruan hitz egiten bada estruktura antzeko bat erabili beharko genuke, errepikakorra eta nolabait “aspergarria”. Beraz, nire ustez, ez du Target-ak determinatzen estruktura baizik eta mezuak edo intentzioak.

- Zein erritmo da egokiena? Zergatik?

Animoki ezberdin egon daitezke umeak une jakin batean, beraz ez dago jarraitu beharreko erritmo zehatzik. Umeei edozein abestiri heltzen diote, alai zein tristea izan.

- Errepikapenak erabiltzea komenigarria al da?

Bai, helduekin funtzionatzen duen moduan baina oraindik gehiago.

- Abesti luzeak ala laburrak aholkatzen dituzu?

Ez dut ezer aholkatzen. Bizitza laburra dela adierazten badu adibidez abestiak, kantu labur bat egitea aproposa da baina bestela ez nioke garrantzia emango luzerari. Estrukturaren antzera intentzioak determinatzen duela esango nuke.

- Zer da umeek errazen barneratzen dutena kantu batean? Erritmoa? Letra? Errepika? Tonoa?...

HUKa izatea oso garrantzitsua da. HUK bat abestia amaitzen denean oroitzen duguna da; izan daiteke, melodia (indartsua) edo produkzio elementua (txaloak...) zerbait bereizgarria kantua amaitzean gogoratuko duguna, alegia.

- Ume talde baten ahotsak kantuetan sartzeak ematen al dio kantuari berezitasunik?

Bai, xamurtasuna ematen dio. Baina beti ere gaiak umeekin zerikusia badu.

- Zure ustez, zein onura du umearentzat kantatzeak?

Onuraz gain etorkizunean badu zerikusirik eta eraginik. Ardura handiko espektroa da; eta beraz, lana arduraz, gogoz eta ilusioz egiten bada etorkizunean eragin positibo bat izan dezake.

## 11. Eranskina: Xabier Zabalarik elkarrizketa

- Zer hartu behar da kontutan umeentzako (7-8 urte ingurukoentzako) kantuak sortzerako orduan?

Ez gauza berezi asko, ilusioa dela esango nuke. Umeentzako abesti alaiak, erraz sartzekoa, estribilo erraza. Transmititu nahi dugunaren arabera lasaia, hunkigarria, alaiak...aproposa izan daiteke. Transmititu nahi dugunaren arabera hartu beharko ditugu gauza batzuk kontuan edo beste batzuk.

- Badago adin tarte bakoitzerako ezinbestean errespetatu beharreko arau edo ezaugarririk?

Musikan eta artean arau gutxi daudela esango nuke. Artea askea izan behar dela esango nuke, eta azken batean, ondo kontrolatzen duzuna transmititu behar da.

- Zein da haur edo umeentzako erregistro/tesiturarik egokiena?

Adinaren arabera baina oktaba bat eta zeozer gehiago, La-Do. Hala ere, nork abestuko duen kontuan hartu behar da, nor izango den interpretea, protagonista eta horri egokitzen zaio. Berea izan behar da tonurik egokiena. Eta umeak leloan sartu nahi badira, moldaketak egin beharko dira; hobe da umeak logikak dioen lekuan sartzea.

- Eta badago abestiak jarraitu beharreko estruktura zehatzik?

Ez, normalean erabiltzen dudana introa, estrofa, estribiloa, zubia eta berriro ere estrofa eta estribilo. Errepikapenak ere erabil daitezke. Ez dago estruktura zehatzik.

- Errepikapenak erabiltzea komenigarria al da?

Bai, beti laguntzen du, estribiloa da errepikatu beharrekoa nire ustez, edo behintzat, estribiloaren zatirik garrantzitsuena.

- Abesti luzeak ala laburrak aholkatzen dituzu?

Gero eta laburragoak, gizarteak hori markatzen digu; pentsatu bideoetan oso laburrak ikusten ditugu. Horrek ez du esan nahi 30 segundokoa izan behar denik, baina 3 minutu baino gehiagokoa ez nuke egingo. Artean oso zaila da arau konkretuak markatzea.

- Zer da umeek errazen barneratzen dutena kantu batean? Erritmoa? Letra? Errepika? Tonoa?...

Denok barneratzen duguna, sentsazioak. Ostean, letra erraza bada oso ondo barneratzen dute baina hori umearen arabera... Ume batzuek ez dute letra ikasiko baina mugimenduarekin erritmoa barneratuko dute.

- Ume talde baten ahotsak kantuetan sartzeak ematen al dio kantuari berezitasunik?

Noski, hartu playbacka... jarri heldu baten ahotsa eta ondoren jarri umeen ahotsa. Kantuak oso leku ezberdinetara eramango gaitu, sentsazio ezberdinak eragingo ditu. Umeen mundura eramaten gaitu eta hori denoi gustatzen zaigu.

- Zure ustez, zein onura du umearentzat kantatzeak?

Denontzat da onura kantatzea, eta sare sozialetan gero eta gehiago entzuten da gai honen inguruan; gorputzerako, norberarentzako, sentsaziorako, espresiorako... Kantatzea garrantzitsua da baina musika orokorrean.

## 12. Eranskina: Itsaso Arrietari elkarrizketa

Itsaso Arrietari egindako elkarrizketan musika beretzako zer den galdetu eta musikaren garrantzia aipatzen du: “ musikak taldea egiten du, hainbat urte daramatzat heldu zein umei ikastaroak ematen eta taldean gaudenean begiradak bat egiten dutela oso argi ikusi dut; hori bakarrik ez, arnasketen bat egiten dutela ere ikus daiteke”.

Umeen abestien ezaugarrien inguruan ere hitz egin du Arrietak, eta bera kantu tradizionalen inguruan aditua denez gero, ildo horretatik gidatu du elkarrizketa, batik bat. Hortaz, umeen kantuen zein motako gaiak lantzen dituen galdetu zaio eta gai ezberdinak lantzen direla dio: “Abesti tradizionalak, hainbatetariko gaiak lantzen dituzte; bikote kontuak, hiletak, eguneroko kontuak... eta horrek argi uzten du umeen kantuek edozein gairi eusten diotela, beti ere modu ezberdinez esanda”. Gehienetan garapenarekin bat datozen gaiak abesten direla dio Arrietak; eskua aurkitzen dutenean eskuaren inguruko kantuak, ibiltzen hasten direnean pausua mantentzearen inguruko kantuak, ipuin laburtxoak...

Codaly metodoa jarraiki, Arrietak dioenez umeen tesiturak garapenarekin bat datoz; “txikiak direnean bi nota bakarrik erabiltzen dira errezitatuta izango balitz legez, ondoren hiru, gero lau...”.

Erritmoari dagokionean, adinaren arabera dela dio ere, horrela ba, 7-8 urte bitarteko umeak kontuan hartzen badira erritmoa markatua izatea beharrezkoa dela eta bitarra izatea garrantzitsua dela dio; batez ere, zentzumenak garatzen dituztelako eta abesti argi eta markatuek, beraien ibilkeraren antzekoek, lana errazten dietelako. Hori bakarrik ez,



honakoa dio erritmoaren inguruan ere: “Erritmoa, pultsua jaiotzen garen unetik daramagu barnean, bihotz taupadei esker eta geroxeago pausuen bidez”.

Abestiaren luzeraren inguruan umearen atentziorako gaitasunean jartzen du arreta eta umeei ezin dutela denbora luzez atentzioa mantendu dio, eta hortaz, laburrak badira hobeak direla. Hala ere, kantu luzeak egin behar izatekotan kontuan hartu beharreko estrategia ere aipatzen du: sorpresa faktorea.

Musikak duen garrantziaren inguruan ere galdetu zaio eta amaren sabelean gaudenetik daukala gudan eragina dio. Hori gutxi balitz, garapenean asko laguntzen duela, ahozkotasuna lantzeko, kontzentrazioa, memoria eta sentsibiltatea garatzeko, lasaitzeko, haurra gizartearen parte sentitzeko, eta beste hainbat aspektutan ere lagungarria dela dio. “Dena da ona musikak dakarrena”.